



Aroztegiko 7 auzipetuei elkartasuna adierazteko manifestazioan parte hartzeko deia egin dute NUPen

AHOTSA/LA HAINE :: 31/01/2025

NUP-eko Ikama, Euskara Taldea eta Astindu taldeek auziperatuei elkartasuna adierazteko ekimen bat egin dute NUP-ren sarrera blokeatzen.

NUPeko Ikama, Euskara Taldea eta Astindu taldeek Aroztegia proiektuaren aurka eta Baztango etorkizunaren alde egiteagatik auziperatuak izan diren pertsonen elkartasuna adierazteko ekimen bat egin zuten atzo goizean minutu batzuk Nafarroako Unibertsitate Publikoaren sarrera blokeatzen, izan ere, auziperatu bat NUPeko ikaslea da.

2021eko udaberrian Lekarozko herrian luxuzko 228 etxebizitza egiteko obrak geldiarazi zituzten Baztango hainbat biztanlek kanpaldi luze baten bidez. Protesta horietan parte hartu zuten zazpi herritar auzipetu dituzte, eta **20 urteko espetxe-zigorra eta 56.000 euroko isunak ezarri nahi dizkiete**, "talde kriminal antolatua" izatea egotzita. Egoera honen aurrean herri gisa modu bateratuan erantzuteko beharra dagoela adierazi du Aroztegiko Elkartasun Komiteak eta otsailaren 1ean Iruñean, Nafarroako epaitegietatik 16:00etan aterako den **manifestazio nazionalean parte hartzera deitu dute**.

<https://eh.lahaine.org/aroztegiko-7-auzipetuei-elkartasuna-adierazteko>